



Euskararen transmisioa indartzen

Herriko eskolek, guraso elkarteek eta zenbait eragilek GurasoLeku programa eraiki dute, haurrak elebidun oso izateko helburuz / 6

TXINTXARRI

Eritasun arraroa bistaratzeko

Dravet sindromea duen Nora Aras Perea gaztearen historiaren berri jaso du TXINTXARRI-k, Luis Miguel aitaren eskutik / 8-9

Telleri baserriko lagunek azokara ekarri dituzten kalabazek erosleen arreta bereganatu dute / 3

Herriko komertzioen balioa aldarrikatzeko, kanpaina eta iragarkia aurkeztu ditu Aterpea elkarteak / 4

'Testigantzak: genozidio baten islak' liburua aurkeztu du Islada Ezkutatuak taldeak, kultur etxean / 5

Euskal kulturaren oinarritutako festan murgilduko da Lasarte-Oria hilaren 23an / 7

Erronkaz jositako denboraldiari ekin dio Ostadar Boleibola sailak; jubenilek irabazi egin dute / 11

Emaitza bikainak erdietsi dituzte LOKEko judoek Espainiako Kopan eta Gipuzkoako txapelketan / 12

BACK TO WORK

2 MÓ
229€

progresibo erreflexuen
aurkako lenteekin



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943-37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Eztabaida gutxi izan da urriko osoko bilkuran

Lasarte-Oriako Udaleko alderdiek ez dute hutsik egin urriko ohiko udalbatzarrean. Zortzi puntuko gai ordena jarraitu dute. Aurreikusitako gabeko zenbait gai urgentziaz lantzea onartu dute. Azkarra eta eztabaida gutxikoa izan da hilabete honetako bilkura

Txintxarri

Azkarra izan da urriko ohiko udalbatzarra. Zortzi puntu jarri dituzte mahai gainean eta galdera eta erreguen txandan ere landu dituzte pare bat gai. 2021eko ekainaren 10ean, ekainaren 25ean, uztailaren 8an eta irailaren 9an ospatutako akten onarpenarekin hasi dute saioa. Inongo alderdik ez du eztabaidarako hitza hartu nahi izan, eta bozketa egin dute zuzenean. Aho batez onartu dute.

Orain arte egindako kredituak aldatzeko espedienteen kontu emateaz aritu dira gero. Agustin Valdivia alkateak jakinarazi du gaiari dagokien batzordean eman zirela gaiaren berri udal alderdi guztiei, eta gai ordeneko hirugarren puntuari eutsi dio zuzenean. Udaleko ondasun eta eskubideen 2020ko inbentarioan egindako aldakuntzen onarpenaz hitz egin dute. Kasu horretan ere alderdi batek ere ez du hitza hartzeko eskaerarik egin, eta bozketa egin dute. Aho batez onartuta geratu da.

B e t e r r i - B u r u n t z a Mankomunitatearen estatutuen proiektuaren behin betiko onarpena ekarri dute laugarren puntura eta hori ere zuzenean bozkatu eta aho batez onartuta geratu da.

Laugarren gaiari jarraiki, mankomunitate horretako Batzar Nagusirako edo gobernu kolegiatuaren organoarako ordezkarien izendapena egin dute. Erakunde horrek Lasarte-Oriako udaleko bi ordezkari dituela jakinaraztearekin batera, proposatu du Nuria Fernandez Sozioekonomia batzordeburua eta Jon Antxordoki Euskara batzordeburua izatea foro horretarako batzordekideak. Inork ez du eztabaida ireki eta bozketa egin dute. Desadostasuna agertu da lehenengoz: PSE-EEK eta EAJk aldeko bozka eman dute (11 guztira) eta EH Bilduk eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek, berriz, abstentzioaren alde egin dute (sei guztira). Aurrera egin du proposamenak.

Taxiaren 2022ko ekitaldirako hiri tarifen onartzeaz aritu dira jarraian, eta aho batez adostu eta gero, zazpigarren puntura pasa dira. Gaia aurkeztu aurretik, presazko adierazpena egin dute. Parke, lorategi, berdegune eta zuhaitzak kontserbatzeko eta mantentzeko kontratua esleitzeaz mintzatu dira. Alderdi guztiek onartu dute gaia saioan lantzea, eta bozketa, aldiz, ez dute bat egin. PSE-EE, EAJ eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak eskaeraren alde agertu dira

(hamahiru bozka). EH Bildu, aldiz, abstenitu egin da (lau bozka).

Gai ordenean aurreikusitako gabeko mozio bat ekarri du alkateak galdera eta erreguen tartea zabaldu aurretik; Añarbeko Mankomunitatearena. Azaldu du udalbatzarrerako gai ordena prestatzerakoan ahaztu egin zitzaizkion zerrendara gehitzea. Horren gainean hitz egiteko urgentzia bozkatu dute lehenik. Ados agertu dira alderdi guztiak, eta mozioa aurkeztu du Valdiviak. Aho batez aurrera egin du.

Bilkura amaitu aurreko tartea galdera eta erreguen tartea zabaldu dute. Bi alderdik hitz egin dute. EAJko Jon Antxordoki zabor biltzeta sistemarik gabe dauden Urnieta bidetako bizilagunen gaiaz aritu da. David Mateos Zerbitzuetako batzordeburuak erantzun dio. Arazo hori duten bizilagunentzat, zaborrak biltzeko puntuak jartzeko asmoa dutela aurreratu dio.

EH Bilduko Uxue Loinazek, berriz, Saharako haurren proiekturako dirulaguntzak hilabeteroko ohiko udalbatzarrerara emango zirela adostu zutela esan du. Zerrendan ez zen gaia jaso eta horren zergatiak galdetu du. Informerik ez zuenez, gai ordenatik kanpo uzteko erabakia hartu duela erantzun dio alkateak.

COVID-19aren pandemia tarteko, hiru elkarteek ezin izan dute apenas ezer antolatu 2020ko martxotik. Hitzarmenak sinatzera joan direnean udaletxera, aipatu dute "irrikaz" daudela herriko kaleak giroz betetzeko.

ATLOk 23.604,65 euro jasoko ditu hiru urtetan, Megabak 15.695, eta LOZETek, 14.717. Agustin Valdivia alkateak eta Txus Alonso Ospakizunetako batzordeburuak goraipatu egin dute hiru elkarteek herrian egiten duten lana.

Herrian errotuta dauden jarduerak sustatuko ditu udalak

Hiru urterako lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu berriki LOZET, ATLO eta Megaba elkarteekin

Txintxarri

Danborrada, Errege Magoen etorrera zein erraldoi, buruhandi eta zezensuzkoak sustraituta daude Lasarte-Orian, hein handi batean, lan ederra egiten dutelako zenbait elkarte: Asociacion

Tamborrada Lasarte-Oria (ATLO), Megaba eta Lasarte-Oriako Zezensuzko eta Erraldoi Taldea (LOZET). Haien jarduna bultzatu nahi du udalak, eta hiru urterako lankidetzak akordio bana sinatu du bakoitzarekin.



Alejandro Saenz bozeramailea, Michelin II eremuaren ondoan. LASARTE-ORIAKO PP


Udal gobernuaren "anbizio falta" gaitzetsi du PPK

Michelin II eremuko antolamendu plan berezia eta Teresategiko lan hitzarmena "anbizio eskasekoak" dira

Txintxarri

Alejandro Saenz Lasarte-Oriako bozeramailearen ustez, Michelin II eremuak ez die "herriaren errealitateari eta beharrei erantzuten". Batetik, azalera handiko beste lau gune baitaude, eta bestetik, herriak jada badituen zerbitzuak direlako. Hortaz, "galdutako garapen aukera" izateaz gain, bai merkataritza txikiarentzako bai enpresa txiki eta ertainentzako "albiste txarra" dela uste du PPK. Merkataritza-gune bat, tailer mekaniko bat, hotel bat eta gasolindegia bat barne hartuko duen eremu bat proiektatu dute lursail horretan.

Teresategiri dagokionez, berriz, Saenz aburuz, udal gobernu taldeak "apurrekin" arindu nahi du Leroy Merlinek ezartzeak herriko saltoki txikiei eta gainerako gizarte eragileei eragindako "haserre". Izan ere, sinatutako lan hitzarmenean langabezia dauden, gutxienez, 50 lasarteoriatar bost urtez kontratatuta edukitzeko konpromisoa hartu badu ere enpresak, Saenz arabera, horrek ez du hura behartzen bost urteko kontratu hori jarraian betetzera. "Egonkortasunik gabeko bost urteko kontratuak dira, gure herrian %9 baino gehiagoko langabezia izanik".



GARAIOETXEA IKASTETXEO GURASOAK

Protokoloaren aurka eseri dira

Haurrak Ere Bai plataformak egindako deialdiarekin bat egin dute Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeko dozenaka gurasok, eta hamar minutuz eseri dira patioan, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza zentroetan aplikatzen duen protokoloaren aurka protestatzeko. "6 eta 12 urte arteko haurrak aire zabalean musukorik gabe egon ahal izatea eskatzen dugu".

Azokako harribitxiak, Telleriko kalabazak

Kalabaza eder pare bat ekarri dituzte Telleri baseritik Andatza plazako azokara. Bakoitzak 22,5 kilo inguru pisatzen ditu. Merkatura sartzean, bezero ugari geratu dira barazki horiei begira Bestalde, GSIE elkarte sinadurak biltzen ari da, azoka tokiz aldatzeko

Iñigo Gonzalez Sarobe

Tajamar biribilgunetik igo eta Andatza plazako azokara sartzean, maldatxoa igo eta eskuinetara, Telleri baserriko kideen postua dago. Arteagatarrek ortuko onena eramaten dute asteazkenero: tomateak, porruak, letxuak, azaloreak... eta beste hainbat. Barazki guztiek dituzte itxura eta kolore ederra, baina denen gainetik, oraingoan, kalabazek bereganatu dute bezeroen eta argazkilarien arreta. Ez da gutxiagorako: eskuineko argazkian ikus daitekeenez, aleak ez dira nolanhikoak. Pedro Arteagak baskulan jarri ditu biak: 22,5 kilo inguru pisatzen ditu bakoitzak.

Arteagak TXINTXARRI-ri kontatu dionez, 23 urte daramatza berak asteazkenetako azokan lanean. "Lehenago, gure amak saltzen zituen barazkiak eta esnea". Alboan dauka Pilar arreba; bezeroekin ari da. Erosleen ilara desagertu denean, anaiarengana gerturatu eta esan du familian hamar anai-arreba direla. Biek ala biek apenas hartu ahal izan duten denborarik kazetarietara hitz egiteko, herritarrek bata bestearen atzetik gerturatu direlako postura (ia eguerdia izateak eragina izan du horretan), ez soilik kalabaza handiak



Pedro Arteaga, azokara eraman zituen kalabazekin. TXINTXARRI

ikustera, baita barazkiak erostera ere.

Purean, egosita, labean erreta, plater baten osagarri gisa... Modu askotara jan eta presta daiteke kalabaza, eta hala egingo dute azokara bertaratu diren herritarrek, lehengai primerakoa dela jakinda.

Sinadurak biltzen

TXINTXARRI-k jakin duenez, Gipuzkoako Saltzaile Ibiltarien Elkarte (GSIE) sinadurak biltzen ari da azoka tokiz aldatzeko eta Kale Nagusira zein Ola kalera

eramateko; pandemia lehertu aurretik han egiten zen. Herritar batzuen firmak jaso dituzte honezkerok. Iazko martxoan, gainontzeko jarduerak bezala, bertan behera utzi zuen udalak asteazkenetako azoka, koronabirusagatik. Egoera epidemiologikoa hobetu ahala, hilabete eta erdi beranduago, Loidi-Barren pilotalekuan hasi ziren salerosketak egiten, ekainean Andatzara eraman zuten arte, aire zabalean zegoelako. Orduetik, bertan egiten dituzte erosketak lasarteorietarrek.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Itxaropen galdua

Astegun buruzurrian, herriko ingurumarietara korri egitera noala, kaleko erloju-termometroak arratsaldeko laurak markatzen ditu eta hemezortzi gradu. Haren ondoko markesinako eserlekuan adineko hiru gizon, udazkena izanik ere iparra dabilenez, eraikineko kristalaren epeltasunak eskaintzen duen abaroan.

Bata, hamaika uda eta negu sufritutako zapata beltz higatuei begirada iltzatuta; bigarrena, zerura begira, sasoiari dagokion uso edo antzara, ondotik pasatzen edo mugitzen den orori begira. Hitz gutxi eta oroitzapen ugari, lasai ederrean.

Batek daki beraiek ere egon ote ziren haien jaioterrian bizitza hobe batera eramango zituen autobusaren zain. Batek daki kartoizko maleta batekin etorri ote ziren, bertan beharrezko zuten guztia hartuta, edo agian, zuten guztia hartuta. Maleta haietan ez zegoen haur-jolasentzako lekurik, 10-12 orduko lanaldiaren premia baizik. Batek daki zer ote zekiten lurralde berriari buruz, arrotza zen hizkuntzaz, ohiturez...

Zenbat beldur, zenbat kezka eta galdera. Ametsak bakarrik korapiloaren lasaigarri.

Ordu erdi geroago bertan jarraitzen dute, autobusaren zain, bueltakoaren zain agian, irudikatutako itxaropena egia bihurtu dela pentsatu nahirik. Izan ere, iragan astean azkenekoz, itxaropenaren bidean bizimodu berri baten ametsa zapuztu zien loak beste hiru gizoni.



TXINTXARRI

Urrezko ezteiak ospatu dituzte

Biyak Bat egoitza ere hasi da ospakizun ekitaldiak berriro egiten. 2020an eta 2021ean urrezko ezteiak (50 urte ezkontuta) bete dituzten bazkideek aitorza xume baina hunkigarria jaso dute. Kalejiran joan dira mezara, oroigarriak jaso dituzte udal ordezkarien eskutik, talde argazkia atera dute Arantzazuko Ama parrokiaren aurrean eta bapo bazkaldu dute egoitzan bertan.

Ipuin irakurketa

saio berezia

HH3-HH4koentzat

Azaroaren 2an, 17:30ean

Ttakunenean. Doan

Izena emateko: aisia@ttakun.eus
whatsapp: 695 78 53 92



30 urte beteko ditugu eta irudi berria dugu!

Produktuak salgai



Poltsa Motxila poltsa

Eskaerak: harpidetza@ttakun.eus | 646 82 44 66



Tokiko komertzioaren balioa aldarrikatu dute

Lasarte-Oriako komertzio, taberna eta zerbitzu enpreetan erostearen garrantzia balioan jartzeko, Pura Suerte kanpaina aurkeztu du Aterpeak: 2.000 euro banatuko ditu erosketa txarteletan hilaren 30era arte. Iragarki bat ere prestatu du, tokiko negozioen ezaugarriari buruz

Txintxarri

Pura Suerte izeneko kanpaina martxan jarri du Aterpea Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak, Lasarte-Oriako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Dendariek azpimarratu dute "ordu asko" sartu dituztela egitasmo horretan, eta espero dutela herritarren gustukoa izatea. Helburu nagusia da bezeroak herriko negozioetan erosteaz sentsibilizatzea.

Antolatzaileen hitzetan, belaunaldi gazteetako bezeroak erakarri nahi dituzte kanpainaren bidez; zehazki, 25 eta 50 urte artekoak. "Horieta askok ez dute tokiko establezimenduetan erosteko ohiturarik, eta ikusarazi nahi diegu gure negozioak sendoak eta kalitatezkoak direla". Hori dela eta, sare sozialak "oinarritakoak" izango dira: Lasarte-Oriako erosten edo kontsumitzen dutenek argazki bat atera beharko dute negozioaren jabearekin edo erosketa



Pura Suerte kanpaina hilaren 30ean bukatuko da, larunbatarekin. TXINTXARRI

txartelarekin, eta Aterpeko kideei bidali. 2.000 euro banatuko ditu elkarteak erosketa txarteletan. Parte hartzeko azken eguna hilaren 30a izango da, larunbata.

Kanpaina ez ezik, iragarkia ere aurkeztu du Aterpeak. Herriko komertzioaren ezaugarriak balioan jartzeko, "ikus-entzunezko ausart, moderno eta alai" sortu du Aterpeak, Artsier Fotografia

dendako jabe Asier Esparzak nabarmendu duenez. "Tokikoa kalitatezkoa dela erakusteko, analogia bat egin dugu, zaldien eta merkataritzaren munduak batuz". Donostiako Hipodromoari, Ramon Avial prestatzaileari eta Alejandra Gutierrez jockeyari eskerrak eman dizkie Esparzak, grabaketetan parte hartu izanagatik.

Atxikimendua eta sari banaketa



Aterpeko eta GMAEko ordezkariak, osasun zentroaren aurrean. TXINTXARRI

Bularreko Minbiziaren Aurkako Eguna Aterpeko dendariak zapi eta globo arrosekin apaindu dituzte komertzioak, bularreko minbizia ikertzera baliabide gehiago bideratzea eskatzeko. Osasun zentroan argazkia atera dute Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarte kideekin.



Hamar erosketa txartel banatu dituzte Jaizkibel plazan. TXINTXARRI

Bezeroaren Hamabostaldia Jaizkibel plazan banatu dituzte Bezeroaren Hamabostaldiko sariak Aterpeko zein udaleko ordezkariak: 500 euroko bi erosketa bonu, eta 250 euroko zortzi.



TXINTXARRI

Gatazkaren bi ahots, aurrez aurre

Proyecto 43-2 konpainiak *Viaje al final de la noche* antzeztu du Manuel Lekuona Kultur Etxean. GALek hildako ETAkide baten alaba eta ETAk hildako emakume baten semea protagonista ditu obrak. Agertokiko oholtzan eserita, albo banatan, biak. Argi batek argitzen du bakoitza eta

gainerakoa iluntasuna da. Haurtzaroko pasadizoak gogoratu dituzte, txandaka, amarekin edo aitarekin bizitzako gertakarien bat. Ez diote elkarri begiratu, ikus-entzuleei baizik. Konpainiak osatutako euskal gatazkaren gaineko *Rescaldos de paz y violencia* trilogiaren azken obra da.



TXINTXARRI

Cadizko umoreak alaitu du herria

Lo siento Patxi, no todo el mundo puede ser de Euskadi eta *Daddy Cadi* txirigoten umoreak hartu du Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa. Gaurkotaneko eta eguneroko gaiak umoretik ere hel daitezkeela erakutsi dute bata eta besteak. Inauterietarako oraindik ere hilabeteak falta badira ere, sona handia duten Cadizkoen zati bat ekarri dute.

Estatu kolpeak ekarritakoez

Lasarte-Oriako memoria historikoaren berreskuratzean diharduen Islada Ezkutatuak elkarteak 'Testigantzak: genozidio ezkutu baten islak' liburua aurkeztu du. Lekukotza horiek eman dituztenetako hainbat lagun bildu dira kultur etxeko auditorioan

Maitane Aldanondo

Badira itxarotea merezi duten zenbait gauza. Horietako batzuk ospakizunak, aitortzak edo eskertzak dira. Horietatik guztietatik zerbait izan zuen *Testigantzak: genozidio ezkutu baten islak* liburu mardularen aurkezpen ekitaldiak. 2020ko martxoaren 14an aurkeztekoak ziren, baina pandemiak gelditu egin zuen saioa eta orain arte atzeratu. Islada Ezkutatuak elkarteak kide Mailu Arrutiaren esanetan, "egun pozgarria" izan zen hilaren 17koa. Gogoan izan zituen "bidean gelditu direnak".

Kultur etxeko auditorioan batu ziren orri haietako 88 testigantzak eman dituztenetako batzuk. Euren lekukotzak hitzetan jarri eta lotuta, isilarazitako historia josi du elkarteak. Joxea Muguruzak gogoratu bezala, 1936tik 1948ra bitartean Lasarte-Oriaren ezer gertatu ez zela bazirudien ere, egindakot lanak erakusten du egia oso bestelakoa dela.

Azalpen laburraren ondoren, Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza. Ikertzaileek egindako lana eskertu zuen, estatu kolpeak ekarritakoa ezagutzeko aukera

ematen baitu. Hitz egin dutenei luzatu zien aitortza eta, onartu zuenez, alkate gisa "harro" eta "eskertuta" dago Islada Ezkutatuak egindako lanaz.

Jon Gamba Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide eta Memoria zuzendaria izan zen hitz egiten hurrena. Isilarazitako testigantzak biltzean "egia" egiten dutela azaldu zuen eta halako ekitaldiek "errekonozimendua eta erreparazioa". 85 urte bete dira estatu kolpetik eta hura bizi izan zutenak gero eta gutxiago dira, horregatik, haien kontakizunak jasotzeko berebiziko garrantzia du.

Egindako lanaren aldarrikapena

Lehen hitzartzeen ondoren, Joseba Tapiak herritarra irten zen agertokira. Gerrak kultur mugimendu handia eragin zuela azaldu zuen, kontra egin eta gudarosteei indarra emateko kantak egin zirela. Himno horietako bi jo eta abestu zituen: *Gudara noa, aio maitea* eta Pepe Bolunbururen *Gure gerrako ibilerak* aukeratu zituen "halako deskalabru, txikizio eta injustizien aurrean, herri horrek bazuelako

kapazitatea baita umorea egiteko eta distantzia bat hartzeko. Horrek asko adierazten du bere mailaz".

Jarraian, obraren prestaketan beraiekin egon, eta instituzionalki lagundu dieten alkateei eta kabinete buruei eskertza egin zieten, euren "hitza eta konpromisoak" bete, eta edonolako arazoren aurrean laguntzeko prest egon direlako. Ane Labakaren bertso bat oparitu zieten eta oholtzan jaso zuten Agustin Valdiviak, Pablo Barriok eta Leire Elizegik. Inaki Mugicak eta Jesus Zaballosek ezin izan zuten ekitaldira joan.

Beethovenen pieza baten ondoren, Muguruzak azaldu zuen hilaren 27an liburu berri bat aurkeztuko dutela, Lasarten izandako gudari buruzkoa. Gerora, beste bi osatu nahi dituzte frankismoaren basakeriari buruz. Horiekin testigantzen atala amaituko dute. Hitzartzean, elkartearen ibilbidea eta lana gogoratu zituen eta haren garrantzia aldarrikatu zuen ere.

Amaitzeko, Zero Sette eta Euskadiko Orkestrako bina kidek Guridiren pieza bat eta eurek osatutako beste bat jo zituzten.



Joxea Muguruza eta Mailu Arruti Islada Ezkutatuak-eko kideetako bi dira. TXINTXARRI



Jon Gamba Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide eta Memoria zuzendaria. TXINTXARRI



Ezker-eskuin: Agustin Valdivia, Pablo Barrio eta Leire Elizegi. TXINTXARRI



Euskadiko Orkestrako (ezkerrean, zutik) eta Zero Setteko bina kidek beste hainbeste pieza jo zituzten ekitaldian. TXINTXARRI



Joseba Tapiak 'Gudara noa, aio maitea' eta 'Gure gerrako ibilerak' oholtzaratu zituen. TXI

Euskara indartsuago transmititzea helburu

Haurra ahalik eta hiztun osatuena egiteko helburuz, GurasoLeku programa eraiki dute herriko ikastetxe eta guraso elkarteek, Lasarte-Oriako Udalarekin, Ttakun Kultur Elkartearekin eta Muntteri AEK euskaltegiarekin elkarlanean

Txintxarri

Familietan euskararen transmisioa bultzatzearen bidez, herriko haurrak elebidun oso bihurtzea du xede GurasoLeku egitasmoak. Programa hori hainbat erakunde eta eragileren artean eraiki dute, eta lan mahaian elkartzen dira, egitasmoa koordinatzeko. Hauek dira partaideak: Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordea, Ttakun Kultur Elkarte, Muntteri-AEK euskaltegia, Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Andrejoakinaenea haurreskola eta Burunzpe zein Landaberri guraso elkarteak. Guztien artean egiten dute GurasoLekuren hiru adarren jarraipena: GurasoLagun, GurasoLandia eta GurasoTegi.

Arestian esan bezala, programaren xede nagusia da herriko haurrak ahalik eta hiztun osatuenak izatea. Horretarako, konektatu egiten ditu familiaren, eskolaren eta herriaren gogoak eta baliabideak. Jon Antxordoki Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburuak gogoratu du "gurasoen tipologia guztiek" dutela aukera GurasoLekun parte hartzeko, "euskal hiztun diren kasuetatik, biek hizkuntzaren ezagupenik ez duteneraino". Eskola haurraren bigarren sozializazio eremutzat jotzen bada ere, horren

aurretik, sendian garatzen ditu gaitasun horiek. "Hizkuntzekin ere, familia du lehenbizi harremantze eremua haurrak, eta garrantzi berezia aitortzen zaio bertan jasotzen denari, bai jarrerari dagokienez, bai gaitasunei eta erabilera ohiturei ere".

"Erabateko aldaketa"

Antxordokik adierazi du "erabateko aldaketa" eman dela herrian euskaraz ikasten duten umeen proportzioetan. "Orain hiru hamarkada, 1991-1992 ikasturtean, herrian eskolatutako Haur zein Lehen Hezkuntzako ikasleen %27ak ikasten zuten D ereduan. Gaur egun, berriz, guztiek, %100ak. Horrek esan nahi du haur guztiek euskaraz dakitela, desberdintasunak desberdintasun".

GurasoLeku egitasmoan parte hartzen dute Lasarte-Oriako eskolek. Herriko ume askok Andrejoakinaenea haurreskolan egiten dituzte lehen urratsak, euskaraz. "Gurean, euskararen transmisioa oso goiztiarra da eta ziur gaude horrek eragin positiboa izango duela etorkizunean; hasieratik hizkuntza horretan egiten diren harremanek joera mantenduko dute", adierazi du. GurasoLeku "herria euskalduntzeko baliabide

oso aproposa" dela uste du. "Are gehiago, Lasarte-Orian familia erdaldun dezente daudelako; oso garrantzitsua da lehenbailehen hastea hori lantzen".

Zentzu horretan, Sasoeta-Zumaburutik nabarmendu dute gurasoek ikas dezaketela euskara ez dela eskolako hizkuntza soilik, Euskal Herri osokoa ere bai. "Aukera oso interesgarria da, bai euskaraz hitz egiten hasteko, bai norberak bere maila hobetzeko, beste guraso batzuekin batera. Horrez gain, momentu oso politak parteka ditzakete seme-alabekin, eta edukiak gusturago barneratu". Eskolak jokatzen duen papera "berebizikoa" dela aipatu dute, eta euskararekiko "jarrera positiboa" izaten erakusten dietela, Haur Hezkuntzatik.

Garaikoetxea Landaberri GurasoLekun parte hartzen du ikasleak "benetako elebidun" bihurtzea nahi duelako. "Horretarako, ezinbestekoa da familietan euskararen transmisioa bultzatzea, hizkuntzarekin duen lotura funtsezkoa baita prozesu horretan". Gurasoak ere inplikatu badaude, "askoz errazago eta modu naturalagoan" gertatzen da. "Eskolari, bakarrik, oso zaila egiten zaio helburu hori arrakastaz erdiestea".



Andrejoakinaenea haurreskolako irakasle taldea. TXINTXARRI



Sasoeta-Zumaburuko irakasle taldea. TXINTXARRI



Garaikoetxea-Landaberriko irakasle taldea. TXINTXARRI

Solaskideren kanpaina martxan dago

Lasarte-Oriako Udalak, herriko euskaltegiak (Udal Euskaltegiak eta Muntteri AEK-k) eta Ttakun Kultur Elkarteak euskaraz aritzeko guneak eskaini nahi dizkie lasarteoritarrei, eta horretarako, Solaskide egitasmoa antolatu dute aurten ere. Izena emateko lehen deialdia urriaren izaten denez, martxan da honezkeroko. Programa zertan den erakutsi eta tarte atsegin bat igarotze aldera, Mintzatonbola ekarri dute herrira, Okendo plazara zehazki.

Jon Antxordoki udaleko Euskara batzordeburuak eta Xabier Matxain Ttakuneko

Kultura arduradunak egin diete harrera tonbolan parte hartu duten herritarrei. Egitasmoa zertan den azaldu diete. Gurutzegrama bete duten zenbait partaidek sariak irabazi dituzte.

Antxordokik adierazi du hoguei urtetik gora direla Lasarte-Oriako Udalak egitasmo hau sustatzen duela eta gaur egun ere zentzu bete-beteko duela euskaraz aritzeko ohitura eta gaitasun gehiago duten bizilagunak, gaitasun eta ohitura gutxiago dutenekin harremanetan jarriz elkarrekin bizitzea. "Izan

ere, elkarrekiko jardun horrek laguntzen baikaitu komunitatea egiten eta bizilagun izaten". Horrexegatik, dei egin die euskaraz aritzeko joera dutenei, zein hori lortu nahi dutenei, Solaskiden izena eman dezaten eta aukera honetaz baliu daitezten.

Solaskideak astero elkartu ohi dira taldearekin, Matxainek azaldu duenez. "Normalean kafe baten bueltan biltzen dira, baina bestelako jarduerak ere egin ditzakete elkarrekin". Bidenabar, noizean behin ekintza osagarrietan ere har dezakete parte. Interesa dutenek kultura@ttakun.eus-era idatz dezakete edo 695 78 53 89 zenbakira deitu.



Herritar bat, Mintzatonbolan parte hartzen. TXINTXARRI

Bueltan da euskal kultura oinarri duen festa

Euskal Jaiak itzuli dira. Pandemia tarteko iaz ezin izan zuten ohi bezala ospatu, eta aurten mugaren batzuk badira ere, herritarrek festaz gozatzeko aukera izango dute. Goizetik hasi eta iluntzera arte, jarduera ugari eramango dituzte aurrera antolatzaileek

Txintxarri

Euskal Jaiak bueltan dira. Pandemia tarteko iaz ezin izan zuten ohi bezala ospatu, eta aurten mugaren batzuk badira ere, herritarrek festaz gozatzeko aukera izango dute urriaren 23an, larunbatarekin. Euskal komunitatea elkartzeaz gain, hain gertuko ez zaien horientzako gune ere izan nahi du ekimenak. Egitaraua Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeak eta Ttakun Kultur Elkarteak prestatu dute, lankidetzan. Bi erakunde horien ordezkariak, Jon Antxordoki udaleko Euskara batzordeburuak eta Ttakuneko Kultura arduradun Xabier Matxainek ezagutarazi dute jardueraz zerrenda, Okendo plazan egindako agerraldian. Ez dira bakarrik egon, ordea. Alboan izan dituzte festaren parte izango diren zenbait eragileetako kideak ere: Lierni Arozena, Ttirriki Ttarraka eskolaren izenean; Garazi Zinkunegi eta Rikardo Izaga, Muntteri-AEK



Egitaraua landu duten eragileek aurkeztu dute Euskal Jaiak. TXINTXARRI

euskaltegiarenean; eta Plaza dantza ekimeneko kide Xabier Fernandez de Lezea.

Hasiera, txistularien eskutik

Txistularien diana Okendotik abiatuko da, 09:30ean, erdialdeko

eta Zumaburuko kaleetan barrena zabalduko du jaiak hasi dela. Ondoren, 11:00etan, kantu dantza jirak hartuko die lekukoa. Sagardotegi plazan elkartu, eta bertatik irtengo dira kaleak girotzera, 12:30ak arte. Ordu

Herri bazkaria, Ttakunenean

Euskal Jaietako herri bazkaria ez dute Okendo plazan egingo, Ttakunenean baizik. Ttakun Kultur Elkarteak zuzendaritzak eman du erabakiaren berri, eta zergatiak azaldu ditu: "Lasarte-Oriako Udalak ez du baimenik eman bazkaria plazan egiteko, alkatearen dekretu baten bidez, urriaren 20koa". Egoera horren aurrean, zuzendaritza batzordeak jarduerak mantentzea erabaki du. Esan bezala, Iñigo de Loiola kaleko 6. zenbakiko lokalean egingo du, 14:00etan. Aurrez tiketak erosita zituzten guztiak tokia izango dute –elkarteak zehaztu duenez, urriaren 19rako ia guztiak salduta zeuden–. Baten batek txartela itzuli nahiko balu, aukera izango du horretarako, urriaren 22ko arratsaldera arte, kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzita edo 695 78 53 89 telefonora deituta. Balizko eskaera horiek Ttakunek berak kudeatuko lituzke, eta urriaren 25etik 31rako astean gauzatuko lituzke itzulketak.

Okendo plazan bazkaltzeko baimenik gabe

Ttakunek jakinarazi duenez, urriaren 15ean dekretu bat bidali zion udalak, egitarauko jarduerak guztiak baimentzen. Bost egun beranduago jaso zuen bigarrena. "Udalak atzera egitea erabaki du, eta debekatu egin du bazkaria Okendo plazan egitea, Euskal Jaiak ospatzeko hiru egun falta zirela". Eusko Jaurilaritzako Herrizaingo Sailarekin kontsultatu zuen udalak, eta horren ostean hartu zuen erabakia, "Ekitaldien antolaketa izeneko bosgarren atalean jasotakoa betetzeko: ostalaritzako guneetan eta jatetxeetan baino ezingo dira janaria eta edariak saldu eta kontsumitu".

berean, plazan, bertako produktuen, eskulanean eta bestelako salgaien azoka jarriko dute. Udalak, azkenean, ez du baimenik eman bazkari herrikoia Okendo plazan egiteko, eta egoera horren aurrean, Ttakuneko zuzendaritza batzordeak erabaki du Ttakunenean eramatea. 14:00etan hasiko da, eta menua

hau izango da: paella eta postrea (edaria, ogia, kafea eta kopa barne). Joxerra San Sebastianek eta Eusebio Lasarte-k girotuko dute bazkalostea. Azkenik, 17:30ean, erromeria egingo dute Ttirriki Ttarraka eskolakoek.

Jaiarekin bat egin eta giroa pizten laguntzeko, antolatzaileek herritarrek deitu dituzte baserriar janztera.

30. urteurreneko ospakizunak, hastear

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte beteko ditu azaroaren 16an. Urtemuga berezi hori ospatzeko ekintzak prestatzen ari da, eta lehenengoa hilaren 23an egingo du, larunbatez, Okendo plazan. Hiru hamarkada hauetan zehar berarekin elkarlanean aritu diren elkarteak eta eragileak eskerrak emango dizkie. "Argi eta ozen esan nahi diegu, 'mila esker!'". Ekitaldia 12:30ean hasiko da. Lehendakari Mari Karmen Ormazabalek aurkeztuko du, eta banan-banan izendatuko ditu elkarteak, oholta gainera igo daitezten. Oroigarri bana jasoko dute bertan, eta zenbait emanaldi laburrak eskainiko dituzte. Amaitu aurretik, talde argazkia aterako dute elkarrekin. Hori da Ttakuneko orain arte iragarri duen ekintza bakarra, baina gehiago ari da prestatzen, eta datozen asteetan emango du haien berri,

sare sozialen eta TXINTXARRI aldizkariaren bitartez. Beraz, adi egon!

Jarduerak gehiago oraindik ez, baina elkarteak jakinarazi du ilustrazio berezi bat erabiliko duela urteurreneko ekintzetan. Janire Arroyo lasarteoriatarrek egin du –Ttakunen programetan parte hartu izan du gazte gisa, eta begirale moduan ere lan egin du–; eskuineko irudian ikus dezakezue nola jaso duen Ttakunen ibilbidea. Marrakzi ederra egin du: uraren ibilbidearen barruan, adin guztietako herritarrek azaltzen dira, eta familiak ere bai. Esan bezala, ilustrazio hori sarritan ikusiko duzue datozen asteetan, ez soilik ekitaldietan, baita elkarteak salgai jarriko dituen zenbait produktutan ere: poltsak, zorroak eta termoak izango dira. Hilaren 23ko Euskal Jaietako azokako postuetako batean erosi ahalko dituzue. Merkatua

11:00etan irekiko dute, eta 13:30ean itxi. Okendo plazan jarriko dute.

Herriko euskaltzaleen nahiaren fruitu

1991ko azaroaren 16an jaio zen Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Orian, bertako euskaltzaleek zituzten ilusioak, nahiak eta asmoak gauzatzeko helburuz. Horren aurretik, makina bat lagunek sekulako lana egin zuten gure herrian euskara sustatzearan alde, eta fruituetako bat elkartearen sorrera bera izan zen.

Orduz geroztik, pertsona askok eta askok lan egin dute Ttakunen, Ttakunekin eta Ttakunentzat. Ibilbide oparoa egin du elkarteak, Euskal Herri osoko euskalgintzako erreferenteetako bat izateraino. Horretan dihardu lanean, buru-belarri eta kementsu. Egin dezala beste 30 urtez gutxienez, eta ospa dezagula urtemuga hori ere elkarrekin!



Janire Arroyok egindako ilustrazioa. JANIRE ARROYO

'DraveTzari'-ren historia ikustarazteko erakusketa zabalik

Donostiako Gero Axular Dantza Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak 'DraveTzari' erakusketa jarri dute ikusgai Manuel Lekuonan; eritasunaz kontzientziatzea da helburuetako bat

Txintxarri

DraveTzari erakusketa ikusgai dago Manuel Lekuona Kultur Etxean; hilaren 14an zabaldu zituen ateak eta 27ra arte izango dute herritarrek jarduera bisitatzea joateko aukera. Gero Axular Dantza Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak elkarlanean sortu duten proiektua da, eta *Dravet syndrome* az kontzientziatzea eta kultura inklusiboa sustatzea ditu helburu.

Hamasei urte ditu *DraveTzari*-k, eta Nora Aras Perea du izena. Dravet sindromearekin jaio zen, gaur-gaurkoz existitzen den *sindrome epileptiko larri*enatarikoarekin. Gaitz horrek ez dio Gero Axularren oholta gaineko emanaldietan aritzeko aukerarik uzten, baina, urteak daramatza aipatu dantza taldearen jarduera ezberdinetan parte hartzen. Zenbaitetan kantuan, eta beste batzuetan, berriz, taldeko dantzarien laguntzarekin dantza eginez.

Gaixotasun arraro gisa izendatua dago Dravet sindromea, izan ere, jaiotzen diren 20.000 haurretatik batek garatzen baitu. Horren ondorioetako bat da eritasuna ezezaguna izatea. Eta hain zuzen ere, horri irtenbide bat jarri asmoz, hau da, sindromea bistarazi eta kontzientziatze

prestatu dute erakusketa. Ez horretarako bakarrik, ordea: kultura inklusiboa sustatzeko ere bai.

Horrela, Gero Axularrek bere emanaldietan erabiltzen dituen hamabi jantzi tradizional ikus daitezke kultur etxeko aretoan. Horrekin batera, jantzi bakoitzaren testuingurua azaltzen duten deskribapen afixa batzuk ere aurkituko dituzte. Baina ez hori bakarrik; baserritar dotore nola jantzi argitzen duten *#dotorejantzi* eskuorria ere eraman ahal izango dute etxera bertaratzen direnek.

Ikus-entzunezko bat ere bai

Kultur etxeko erakusketa osatzeko, multimedia pieza bat ere jarri dute antolatzaileek, Hori ikusi eta entzuteko aukera ere izango dute bisitariek. Bertan *DraveTzari*-ren historiaren berri jasotzeaz gain, baserritar nola jantzi ere erakusten dute, besteak beste, abarkak nola lotu edota buruko zapiak nola jarri behar diren azaltzen dute.

Dravet sindromea ardatz hartuta, euskal kulturak gizarte eraldatzeko elementu gisa dituen aukerak balioan jarri nahi izan dituzte Gure Axular Dantza Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak.



Nora (eskuinean) bere ama Debora, aita Luis Miguel eta ahizpa Amaia ondoan dituela. LUIS MIGUEL ARAS

"Alabari erne bizi gara 24 orduz; krisiek ez dute abisatzen"

LUIS MIGUEL ARAS NORA 'DRAVETZARI'-REN AITA ETA FAMILIA MEDIKUA

Dravet sindromea dauka Nora Aras Perea eta jaiotzen diren 20.000 haurretatik bakarrak garatzen duelako izendatu dute gaixotasun arraro. Gaitzaren berri eman du bere aitak

Maddi Zaldua

Ez dakit zenbat aldiz harrotu zaidan azala elkarrizketa hau prestatzeko, Luis Miguel Aras-ekin (Bilbo, 1970) telefonoz hitz egin dudanean. Nora Aras Perea-ren aita da, eta Lizarrako larrialdietako familia medikua ere bai. Eta ez hori bakarrik, Apoyo Dravet elkarte zuzendaria baita ere. Dravet sindromea izeneko gaixotasun arraroa du Nora alabak, eta gaitz horren gainean gehiago jakin, eta bizi duten egunerokoa bistaratzeko hitz egin du berarekin TXINTXARRI-K.

Zer da Dravet sindromea?

Mutazio genetiko baten ondorioz gertatzen den gaixotasun neurologiko bat da, garunekoa. Neuronak jakin batzuen garapena ez da behar bezala gertatzen, eta ondorioz, neurona horiek ez dute euren funtzioa modu egokian betetzen. Gaitzak zenbait sintoma sor ditzake, baina nabariena eta larriena krisi epileptikoa da. Maiz jasaten dituzte eta kontrolatugabeak dira.

Horrez gain, eragin kognitibo larriak ere izan ditzakete sindromea dutenek. Horien artean aipatu ditzakegu adimenaren garapen nahasmendu moderatu edo larriak, edo jokabidearen

nahasmenduak; autismitik hasi eta hiperaktibitatearaino, adibidez.

Kontuan hartzeko beste datu bat: Dravet sindromea dutenen %16k heriotza goiztiarra sufritzen du.

Nondik dator sindromearen izena?

Eritasun horri lehenengoz arreta jarri zion pertsonaren abizenetik. Charlotte Dravet neurologo frantziarrak hitz egin zuen lehenengoz sindromeaz.

Nola jakin zenuten zuen alabak Dravet sindromea zuela?

Ume bakoitzaren kasuistika ezberdina da, baina lau eta sei hilabete artean jasaten dituzten krisi epileptikoez pizten dute



Norak urteak daramatza Gero Axular Dantza Taldearen ekintzetan parte hartzen. GERO AXULAR

susmoa. Hasieran, bestelako epilepsia mota bat [ez hain larria] izan daitekeela pentsatzea da ohikoa, baina Dravet sindromea dutenen kasuan, krisi epileptikoak maiztasun handiagoarekin gertatzen dira. Horrek jar gaitzake ustezko Dravet sindrome kasu baten aurrean. Geneetako test bat egin behar da sindromea duten edo ez ziurtatzeko.

Gure kasuan, ni medikua izanik eta nire emaztea erizaina, azkarragoa izan zen prozesua. Baina jakin badakit, zenbait kasutan, gaixotasun hori duten zenbaitek denbora luze itxaron behar izan dutela diagnostikoa izateko. Badakit baita ere, gaur egun nagusiak diren zenbait pertsonen sindromea ez zaiela diagnostikatu ere egin.

Nolako da Dravet sindromea duen pertsona baten egunerokoa?

Edozein unetan sufritu dezake krisi epileptikoa. Ameriketako Estatu Batuetako psikiatra ezagun batek esaten duen bezala, etengabeko gudu zelai batean bizi gara; gerta daitekeenari erme beti, krisiek ez baitute aurrez abisatzen. Ondoko gelan egon gaitzake, baina soinuari adi beti. Alabaren ondoan liburu bat irakurtzen egon gaitzake, baina uneoro begirada berarengandik kendu gabe. Etengabeko antsietate horrekin bizi gara, egun osoa pasatzen dugu alabari arreta jarrita.

Etxe batean sar daitekeen ekaitz handienetako bat da sindrome hori. Mendekotasun handia duten pertsonak dira eta kasurik gehienetan erabateko dependentzia dute. Askotan %75eko desgaitasunak izaten dituzte eta horrekin, familien egunerokoa erabat aldatzen da.

Eta nola bizi duzue hori guztia zuek familia gisa?

Aipatu bezala, 24 orduz eta zazpi egunez alabari erne. Horrek gure eguneroko guztia osatzen duten elementu guztietan eragiten du: familia zein bestelako harremanetan, esate baterako. Azken aldian egindako inkesta batzuen arabera, Dravet sindromea duen pertsonen zaintzaile nagusiek –guraso, anai-arreba edo gertuko senideak– egunero ordubete baino gutxiago izaten dugu guretzat, egoera horretan bizi ez den pertsona batek, lauzpabost ordu izaten dituen bitartean. Ordubete hori, gainera, ez da dibertimendurako, eguneko dutxa hartzeko, jateko, edo

oinarrizko beste edozein beharri erantzuteko baizik.

Beste adierazgarri bat da Dravet sindromea duten pertsonen bizikideek pairatzen duten antsietatea edo depresioa. Senide horien %60 bizi da sintoma horiekin, eta, zenbaitetan, %80ra ere igotzen da zifra hori. Ez da eguneroko erraza.

Eta gizarteak nola bizi du Dravet sindromea duen pertsona?

Bi errealitateen aurrean aurkitzen gara. Badago, noski, laguntzeko prest dagoen jendea, baina, badago, baita ere, errealitate hauetatik kanpo bizi nahi duenik. Normaltasun eta zorientasun errealitate batean bizi nahi dutenak. Hori hala izanik, nork joan nahi du edozein momentutan krisi epileptiko bat jasago duen alaba eta bere aitarekin garagardo bat hartzera? Edota nork ospatu nahi du urtebetetze festa, edozein momentutan krisi epileptikoa jasan dezakeen haur batekin?

Bazterkeria kasuak bizitzea egokitu zaie familia askori. Guk, zorionez, zorte handia dugu gure sendi, lagun eta inguruekin, baina familia askok bizitzen duten isolamendu soziala ohikoa da. Aldebikoa da egoera; gaixoen familiek euren seme edo alabak babesteko zenbait lekutara ez joateko erabakia hartzen dutelako batetik, eta gizarteak gaixo daudenekin zenbait une partekatuta nahi ez dituelako bestetik. Hori da bizi garen gizartearen isla. Gizarte inklusiboa detaile txikietan galdu egiten da. Uste baitugu dena konpontzeko gai garela, eta beti errua besteena dela. Eta, noski, gure senide eta ingurukoentzat onena nahi dugulako, eta horrek ez du tristurarentzat edo arazoentzat lekurik uzten.

Egoera horretan bizi diren familietan dibortzio tasak oso altuak dira.

Zein tratamendu du gaitzak?

Sendatzea ahalbidetuko duen tratamendurik ez daukagu, eta hain zuzen ere, horregatik ari gara proiektu zientifikoak ezartzeko lanetan. Sintomak gutxituko dituzten tratamenduak dauzkagu, adibidez, krisi epileptikoek 30 minutu baino gutxiago irautea laguntzen dutenak. Azken boladan, sendagai horietan hobekuntzak lortu dira, baina gaixotasuna aldatzea ahalbidetuko duten tratamenduak falta dira, terapia genetikoak, esaterako. Entseguak eta probak

egin dituzte, baina oraingoz ez daude eskuragarri.

Apoyo Dravet elkarteak (www.apoyodravet.eu) bost urteko ibilbidea du, baina nik hamar urte daramatzat ikerketa bultzatzen eta hori da gure bidea. Erreminta gutxi izatetik, gehiago eta hobeak edukitzera pasa gara eta bide horretan jarraitu behar dugu.

Gaixotasun arraro izateak zailtzen du ikerketaren eta tratamenduen bidea?

Bai, noski, diagnostiko berantiarretatik hasita. Gaitz arraroak diagnostikatzeko urteak igaro daitezke. Horrek eragiten du eritasun hori dutenen populazioa txikiagoa izatea; kasu gutxiago bai, baina kontuan izan behar da baita ere kasu asko diagnostikatu gabe daudelako edo berandu detektatzen direlako ere gerta daitekeela hori. Hortaz, kasu gutxi badaude ezin daitezke ikerketak martxan jarri, ez baita gaixotasuna ezagutzen.

Inbertsio publiko guztiak presio sozialarekin funtzionatzen dute. Hortaz, logikari jarraiki, presio sozial gehiago egongo da minbiziarentzat adibidez, eritasun arraroentzat baino. Sendagaiak egiten dituzten enpresek inbertsio handiagoa egingo dute biztanleria kopuru handiago batentzat sendagaia sortzen, badakielako salmenta gehiago izango dituela, eta diru gehiago irabaziko dutela.

Guk presio sozial gehiago egiteko lanean jarraitu behar dugu.

Apoyo Dravet elkarteak aipatu duzu. Bertako zuzendaria zara. Noiz, nola eta zergatik sortu zenuten?

Donostia Ospitaleko mediku eta erizainek Osakidetzan Dravet sindromea ikustarazteko ekimen batetik sortu zen. Eritasunaren ikerketarako dirua biltzeko aipatu ospitaleko material jasotzea egin zuten, horren truke dirua ematen zuten enpresetara eramateko edo bigarren eskuko merkatu solidarioetan erabiltzeko. Emaztea eta ni osasun langileak izanik, horren parte izan gara.

Elkarteko familiei laguntza mota ezberdinak emateaz gain, ikerketaren bidearekin ere lan handia egiten dugu. Apoyo Dravet, gaixoei eta euren familiek osatzeaz gain, medikuek, ikertzaileek, hezitzaileek ere osatzen dute. Profesional ugari modu boluntarioan elkarrekin egiten dugu lan. Sare ederra osatu dugu.

Emakumeekiko zapalkuntzaz, dantza eta musikaren bidez

Gero Axular Dantza Taldeak 'Higa' ikuskizun berria estreinatuko du Manuel Lekuonan. Dantza eta zuzeneko musika emanaldiaz gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek

Txintxarri

Gero Axular Dantza Taldeak *Higa* ikuskizun berria ekarriko du larunbatean, urriaren 23an, Manuel Lekuonara. Estreinakoz aurkeztuko dute gainera jendaurrean. Talde horretako zuzendari eta koreografoa da Juan Luis Unzurrunzaga, eta musikari eta musika zuzendaria Andoni Iparragirre. Lasarteoriatarrak dira biak. Horiekin hitz egin du aldizkariak, ikuskizunaren nondik norakoak biltzeko.

Lehen emanaldia egiteko bi hilabete falta zitzaizkiela, bete-betean harrapatu zituen COVID-19aren osasun krisiak. Ondorioz, aurreikusitako plan guztiak bertan behera geratu zitzaizkien eta "luzea" egin zaie bidea azkenerako.

Lana oholtzaratzeko unea iritsi da, baina horren aurreko prozesuaren berri ere eman dute: "Bi urteko aurreprestaketa lana izan da". Lehenengo urtean ideia zehaztu eta dantza eta musika egokiak bilatzen aritu dira. Bigarren urtean, berriz, sortutako koreografia eta musikak dantzari eta musikariei aurkeztu, eta horien lanketa egin dute: "Musikariak musikara bezala, dantzariak koreografiatara egokitzeko denbora tartea izaten

da, eta, nola ez, batzuek besteengana".

Euskal historiaren eta kulturaren pasarte bat ardatz hartu eta gaur egungo gizartearen kezka iturri diren gaiei buruzko gogoeta eginez sortzen dituzte ikuskizunak, eta bide horretan osatu dute *Higa* ere. Lau mende egin dute atzera oraingoan; sorginen garaira. Donibane Lohitzunen (Lapurdi) sorginkeriagatik epaitutako emakumeen kontuak ekarriko dituzte oholtzara. Ikusi ahal izango da, baita ere, emakume horien senarrak Ternuara (Kanada) arrantzan egitera joaten ziren bitartean, nola geratzen ziren euren esku etxeko ardurak guztiak, besteak beste. Hori irudikatuko dute, dantzaren eta zuzeneko musikaren bitartez. 70 dantzari, bederlatz musikari eta lau abeslari aritutako dira taulagainean.

Mikel Laboaren *Baga, biga, higa* abesti ezagunetik hartu dute ikuskizunaren izenburua, hitz labur bat izatea nahi zuten, jendeak azkar oroitzekoa.

Kultur etxeko auditorioan izango da emanaldia, 19:30ean, eta sarrerak 5,50 euroan daude salgai. Iparragirrek eta Unzurrunzagak dei egon diete herritarrei emanaldia ikustera gerturatu daitezten.



Andoni Iparragirre eskuinean eta Juan Luis Unzurrunzaga ezkerrean. TXINTXARRI

"Ez dut sinesten Kontxako Bandera gurea denik"

AIORA BELARTIETA GALARDI DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK ESKIFAIAKO KIDEA
Donostia Arraun Lagunak traineruak Kontxako Bandera eta Euskotren Liga eskuratu ditu aurtun. Herritarrak bere harritxo jarri du denboraldi ikaragarri horretan

Nerea Eizagirre

Denboraldi borobila egin du aurtun Donostia Arraun Lagunak traineruak. Euskotren Liga, Kontxako Bandera eta Euskadiko zein Gipuzkoako txapelketak lehenengoz irabazi ditu eskifaia. *Lugañene*-ko tostan lasarteoriatar bat izan da lehian, Aiora Belartietia Galardi (Lasarte-Oria, 2002). Denboraldiaren eta ospakizunen gainean egon gara herriko arraunlariarekin solasean.

Donostia Arraun Lagunak traineruak, besteak beste, Euskotren Liga eta Kontxako Bandera eskuratu ditu lehenengoz aurtun. Zer suposatzen du taldearentzat?

Oso kontentu gaude lortutako garaipenekin. Klubean historia egin dugu eta horrek asko pozten gaitu. Denboraldian zehar, ikusi da neguan egindako lanak bere fruitua eman duela.

Kontxako Bandera irabaztea, gainera, historikoa izan da. 71 urte igaro dira Donostiako traineru batek bandera azkenekoz eskuratu zuenetik. Nola bizi izan duzue?



Aiora Belartietia Galardi herritarra Euskotren Ligako sariarekin. EUSKOTREN LIGA

Ikaragarria izan da. Oraindik uste dut ez dudala sinesten aurtengo Kontxako Bandera gurea denik. Amets bat egia bihurtu dugu.

Udaletxeko balkoira igo, udaletxeko harrera, Real Sociedad-Sevilla partidako ohorezko sakea... Ospakizunak ugariak izan dira.

Denbora gutxian ekitaldi garrantzitsu askotan hartu dugu parte eta horietan asko disfrutatu dut. Guztiak izan dira desberdinak eta denak ilusio handiz bizi izan ditut.

Euskotren Ligari dagokionez, zirrargarria izan da...

Aurtengo liga oso gogorra izan da; izan ere, beste traineruek izugarriko maila erakutsi baitute.

Orio izan da zuen arerio nagusia denboraldi osoan zehar. Lehiakortasun horrek astez aste zuen onena ematera behartu zaituzte?

Bai, argi ikusi dugu Orio izan dela gure arerio nagusia eta horrek ere indar gehiago ematen du estropadan gure onena emateko. **Horretarako, entrenamendu saiorik gehitu al duzue? Edo entrenamendu mota aldatu?**

Ez, ez dugu entrenamendu saio gehiago egin. Aurtun talde tekniko berria izan dugu eta ikusi da gurekin guztiz asmatu dutela.

Hala ere, horrek ez du esan nahi aurreko urteetan egindako lana gaizki egin denik. **Denboraldiko helburua alde handiz gainditu duzue. Pozik zaudete egindako lanarekin?**

Bai, oso pozik gaude egindako lanarekin. Denboraldia hasi baino lehen Liga eta Kontxa irabaziko genituela esango baligute ez genuke sinetsiko. **Zer suposatzen du zuretzat denboraldi honek?**

Aurtengo denboraldikoa bizitzan lortu izan dudana lorpenik garrantzitsuenetako bat izan dela esan dezaket. Urte honek arraunean jarraitzeko eta aurrera egiteko indar handia eman dit.

Gainera, postuz aldatu duzu estropadaren batean. Zer moduz moldatu zara?

Bai, estropada gehienetan popan, hankeko babor bezela aritu naiz Lekeitioko banderan izan ezik.

Lekeition brankan jokatu nuen estropada eta gogoan dut oso urduri nengoela. Egoera nahiko ondo kontrolatu nuen eta ondo ateraz zen.

Orain atsedena duzue. Noiz hasiko zarete denboraldi berria prestatzen? Normalean urri bukaeran edo azaro hasieran hasten gara berriro entrenatzen.

Orain arraunaz deskonektatzeko garaia dugu. Hurrengo urtean berriro ere aurtengo mailan egoteko deskantsatu beharra dugu.

"DENBORALDIAN ZEHAR, IKUSI DUGU NEGUAN EGINDAKO LANAK BERE FRUITUA EMAN DUELA"

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Oiartzun KE - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Karla Lekuona, Oiartzunen.
GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Usurbil FT Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN 1. MAILA
Lazkao KE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Arizti Handi, Lazkaon.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ordizia KE - Ostadar SKT A Larunbata. 16:00. Altamira, Ordizian.
JUBENILEN 1. MAILA
Vasconia CD - Ostadar SKT A Larunbata. 15:30. Puio, Donostian.
Ostadar SKT B - Hernani CD Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO KADETE MAILA
Ostadar SKT - Euskalduna SD Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA
Orioko FT B - Texas Lasarte CF Larunbata. 10:30. Mendibeltz, Orion.

Ostadar SKT A - Hernani CD Larunbata. 12:30. Michelin kirol gunean.
Ekintza KE - Ostadar SKT B Larunbata. 13:40. Berio, Donostian.
OHOREZKO INFANTIL MAILA
Ostadar SKT - Tolosa CF Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.
INFANTIL TXIKI
Hernani CD - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Zubipe, Hernanin.
INFANTILEN 1. MAILA
Texas Lasarte CF - Usurbil Udarregi FT A Larunbata. 11:40. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT A - Danena KE Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Urniet KE - Ostadar SKT B Larunbata. 12:00. Urnietan.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Eguzki Arkupe Rehab. - Ostiko Ore Sports Ostirala. 20:40. Maialen Chourraut kirol.
2. MAILA
Bilkain Legorreta - Eguzki ISU Leihoak Ostirala. 20:45. Harrapila fr., Legorretan.

GAZTEEN MAILA
Eguzki AF 2KN - Erain CD B Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kir.
INFANTILAK
Aloña Mendi KE A - Eguzki AF Igandea. 09:30. Zubikoa kir., Oñatin.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Goierrri Ayma - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Aldiri kir., Urretxun.
SENIOR 2. MAILA
Bera Bera Gros - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Paco Yoldi kir., Donostian.
SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - Eibar Saskibaloia Igandea. 10:30. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR ERRENDIMENDU
Hondarribia Ikasbasket - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Hondartza kir., Hondarribian.
KADETE ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Oiarso SKT Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.

KADETE PARTAIDETZA
Ati. Sn. Sn. Aia - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Aiete kiroldegia, Donostian.
INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz RT - Gaztedi RT Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
EUSKAL LIGA 2. MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Gaztedi RT Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
16 URTEZ AZPIKOAK
Labe Lan Ordizia - Gesalaga Okelan Zarautz RT Larunbata. 12:00. Altamira, Ordizian.
PILOTA
JUBENILAK 2. MAILA
Intza KE - Zazpi Iturri 2 Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.

KADETEAK 2. MAILA
Ilunpe 1 - Intza KE Ostirala. 18:30. Frontoi Txiki, Azpeitian.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA 2. MAILA
Ostadar SKT - Navarvoley Fercor Ser. Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko judoek senior mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute. Igandea. 09:30. Erreterian.
IGERIKETA
NEGUKO LIGA
Buruntzaldea IKTKo senior, junior eta infantil mailako igerilariak Neguko Ligari hasiera emango diote. Larunbata. 15:30. Majori kir., Ordizian.
LASTERKETAK
AGOIZKO MENDI LASTERKETA
Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideak Agoizko Mendi Lasterketako proba luzean parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Agoizen.



Ostadar eta Aldapeta Maria B taldeek neurketa borrokatua jokatu zuten, Maialen Chourraut kiroldegian. TXINTXARRI

Maila berrietara egokitzeko denboraldia

Ostadar SKTko boleibol sailak erronkaz beteriko denboraldia hasi du. Jubenil taldea Gipuzkoako Irekiera Txapelketan lehiatu da estreinakoz eta garaipena erdietsi du; senior taldeak, berriz, Euskal Ligako lehen partida galdu du

Txintxarri

Gipuzkoako Irekiera Txapelketa eta Euskal Liga. Ostadar SKTko Boleibol sailak bi txapelketa horietako lehen jardunaldia jokatu zuen urriaren 16an. Jubenilek euren estreineko partida irabazi zuten etxean; seniorrek, berriz, Euskal Ligako partida galdu zuten.

Maialen Chourraut kiroldegian, jubenil mailako taldearen lehen

partidaz gozatu ahal izan zuten kirol horretako zaletuek. Ederki hasi zuen gainera taldeak Gipuzkoako Irekiera Txapelketa; partida irabazi zuen.

Aldapeta Maria B taldea izan zuen aurkari Ostadarreko jubenil taldeak bere debutean. Partida berdindua izan zen eta lau set behar izan zituen talde urdin-beltzak partida bereganatzeko. Lehen hiruretan

emaitza estua izan zen: 25-23, 25-21 eta 23-25. Azkenean, berriz, tartea irekitzea lortu zuen etxeko taldeak, 25-16.

Asier Acuriola entrenatzailea pozarren dago jokalariek partidaren egindako lanarekin. Prestatzailea jakitun da, ordea, Aldapetak, Ostadarren antzera, talde berria zuela. "Jokalaria berri asko zituen aurkariak Horregatik partida lehiatu eta

garaipena erdietsi ahal izan genuen", onartu du.

Trebatzen

Urdin-beltzen kasuan, berria izateaz gain, jokalaria gehienak boleibolean hasiberriak direla azpimarratu du Acuriolak.

"Jubenil mailan lehiatzen dugun arren, taldea osatzen duen gehienek kadete mailan egon beharko luke. Gainera, boleibolean bere lehen pausoak ematen ari dira horietako asko. Zortzi aste bakarrik daramatzate entrenatzen", adierazi du.

Hori dela eta, hurrengo partidak irabazteko zailtasunak izango dituela aurreikusten du talde urdin-beltzeko arduradunak, "batzuen aurka garaipena lortzea ezinezkoa izango dugu."

Eta entrenamendu z entrenamendu eta partidaz partida lan egin, jokalariai trebatu eta egoera aldatuko dela iragarri du. "Gutxieneko ikastaldi bat behar da, baina ziur nago denboraldi amaieran talde batzuekin ederki borrokatuko direla. Gainera, jokalariai ikasteko prest daude". Izan ere, taldearen helburua nagusia "ikastea eta kirolaz gozatzea" dela onartu baitu Ostadarreko arduradunak.

Euskal Liga

Seniorrek, berriz, Iruñean eman zion hasiera lehiari. Partida zail bati aurre egin behar izan zion Lasarte-Oriako taldeak Euskal Ligako lehen hitzorduan.

Aurkaria Navarvoley taldea izan zen eta hiru set behar izan zituen gailentzeko: 25-15, 25-15 eta 25-7.

Ostadarrek ederki hasi zuen partida. Alabaina, aurkariaren

sakeei nekez erantzun ahal izan zien eta horrek eragina izan zuen talde urdin-beltzaren jardunean. Asier Acuriolaren esanetan, "lehen set ona jokatu genuen. Baloiak hartzean arazoak izan genuen, ordea eta horrek taldearen animoan gorabeherak sortu zituen".

Mailara egokitu

Euskal Ligara jauzia eman aurretik maila aldaketa erronka handia izango zela jakitun zirela onartu du talde urdin-beltzeko prestatzaileak. "Lehiaketa gogorragoa da, eta esperientzia handiko taldeak daude".

Partidak irabaztea zail izango dutela argi du Acuriolak, baina hitzordu bakoitzean euren onena eman eta garaipenagatik borrokatuko direla adierazi du. "Lan eta esfortzu gehiago egin beharko dugu Euskal Ligako mailara egokitu eta partidak irabazteko. Baina hori da aurtengo xedea. Kirol batean hazteko muga igotzen joan behar da".

Eta jokalariai ere etapa berri honetarako prest daudela azpimarratu du. "Jokalariai ere badakite egoera zein den eta konpromisoa hartu dute. Motibatuta dauden arren, beldurra ere badute. Izu hori uxatzen badute, mailaren eskaerara egokitu ostean, joko dinamikoagoaz gozatuko dutela uste dut".

JUBENIL TALDEAREN HELBURU NAGUSIA "IKASTEA ETA BOLEIBOLAZ GOZATzea" DA

Intzako bikoteak, bikain Eskuz Binakako Txapelketako lehiari

3. Mailako Nagusiek eta 2. Mailako Kadeteek euren partidak irabazi dituzte Tolosa eta Oiarperen aurka

Txintxarri

Eskuz Binakako Txapelketako beste jardunaldi bat jokatu zuten Intza Pilota Elkarteko nagusien eta kadete mailako bikoteek urriaren 15ean eta 16an, hurrez hurren. Bi bikoteek ederki egin zieten aurre euren aurkari eta garaipena erdietsi zuten.

Jubenilek, berriz, atsedena izan zuten.

Kadete mailako bikotearen denboraldiko lehen garaipenaz gozatzeko aukera izan zuten Michelin Kirol Guneko pilotalekura joan ziren zaletuek.

Tolosako Altuna-Tejera bikotea izan zuen aurrez aurre Beñat

Olazabalek eta Xuban Urdalletak osatutako bikoteak.

Herriko pilota elkarteko gazteak nagusi izan ziren hasieratik eta erraz gailendu ziren, 22-8.

Intzako 3. Mailako Nagusien bikoteak ere partida ederra egin zuten Oiarperen aurka. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak eroso jokatu zuten eta aurkari ezin izan zuten ezer egin. 5-22 irabazi zuten partida.

Garaipeneko bi puntuei esker, bere multzoko lehen postuari eusten dio bikoteak. Lehen fasea amaitzeko bi partida falta dituzte.



Denboraldiko lehen garaipena erdietsi zuen Intzako kadete bikoteak. TXINTXARRI

LOKEko judoek ederki hasi dute denboraldia

Senior eta kadete mailako judoek Espainiako Kopako hitzorduak izan dituzte; infantilek, berriz, Gipuzkoako txapelketan parte hartu dute. Judo elkarteko Asier Sagasti seniorra eta Iker Izquierdo infantila garaile izan dira euren mailetan

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) judokak lehia hasi dira. Senior zein kadete mailako Espainiako Kopak lehiatu dituzte, baita infantil mailako Gipuzkoako txapelketa ere. Herriko kirol elkarteko judokak lan ederra egin zuten eta ondorioz, Asier Sagasti seniorra eta Iker Izquierdo infantila podiumeko gorenera igo ziren.

Urriaren 9an, larunbaterekin, Espainiako Kopako hitzordua izan zuten LOKEko Asier Sagasti, Fermin Balda, Abayuba Gutierrez eta Haritz Urdangarin seniorrek, Iruñeko Mendillorri kiroldegian.

Sagasti lan ederra egin zuen ehun kilo azpiko mailan. Inigo Gerboles nafarra, Saul Garcia errioxarra eta Alberto Mur valentziarra garaituz lehen postua erdietsi zuen.

Balda finalerdietara iritsi zen 90 kilo azpiko mailan. Borrokaldi horretan, ordea, ezin izan zuten Gorka Eizaguirre zarauztarra garaitu.

Brontzeko dominaren bidea hasi zuen gazteak eta Maxime Hiriart izan zuten arerio. Frantsesa gailendu zen eta bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuten LOKEko kideak.



Senior mailako Espainiako Kopan lehiatu ziren LOKEko judokak. Sagasti, erdian. LOKE JUDO

Abayuba Gutierrezek bi borrokalditik bi galdu zituen 60 kilo azpiko mailan; Haritz Urdangarinak ere jardun berdina izan zuen 81 kilo azpiko mailan.

Garaipena infantil mailan

Gipuzkoako infantil mailako judoek, berriz, Eibarren, urriaren 16an izan zuten hitzordua lurraldeko txapelketa jokatzeko, larunbatez. LOKEk bi ordezkari izan zituen Iker Izquierdo eta Aitor Santos.

Izquierdo 55 kilo azpiko finalera iritsi zen. Aurretik hiru aurkariri aurre egin behar izan ziren gazteak. Finalean Adarra klubeko

Jon Iparragirrekin neurtu zituen indarrak eta LOKEko judoka garaile izan zen.

Santos 66 kilo baino gehiagoko mailan bi borrokalditan lehiatu zen, baina ezin izan zuten lehiaketan aurrera egin.

Urriaren 17an, Unai Guisado eta Ekhi de La Cruz kadeteak Suancesen (Kantabria) Espainiako kopako proban lehiatu ziren Euskadiko selekzioarekin.

Dominetako borrokaldietara iritsi ez ziren arren, esperientziatik asko ikasi zutela adierazi du Gorka Aristegi LOKEko prestatzaileak.

Errugbiko taldeek denboraldiari hasiera eman diote

Euskal Ligako partidaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek urriaren 23an Michelin Kirol Gunean

Txintxarri

Lasarte-Oriako errugbi jokalariek denboraldiko lehen jardunaldia jokatu zuten urriaren 15etik 17rako asteburuan. Maila ezberdinetan lehiatu ziren eta emaitzak ere askotarikoak izan ziren.

Senior Ohorezko B Mailako Gesalaga Okelan Zarautz-ek Avilesera (Kantabria) egin zuen bidaia Pasek Belenos-en aurka jokatzeko.

Zarauzko taldeak jokalaria gazte ugari eraman zituen partidara

eta horrek neurketa Paseken alde jarri zuen. Avileseko taldea nagusi izan zen hasieratik eta 49-16 gailendu zen.

Deialdian Jokin Beloki eta Mikel Ibisate herritarrek izan ziren. Belokik minutuak jokatzeko aukera izan zuen.

Euskal Ligako 2. Mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldeak, berriz, garaipena erdietsi zuen Arratiako Zekorrrak-en aurka, 10-40.

18 urte eta 16 urtez azpiko taldeak ere lehia hasi dute. Lehenek 105-



Senior 2. Mailan, neurketa berdindua ikusi ahal izan zuten. TXINTXARRI

Senior 2. Mailako taldeak partida berdindua galdu du

Urdin-beltzek ederki borrokatu duten arren, Bergara Soraluze KEk irabazi du norgehiagoka

Txintxarri

Urriko bigarren asteburuan ahazteko partida jokatu zuen Ostadar Saskibaloia saileko Senior 2. Mailako taldeak Oiartzunen. Hilaren 16an, arantza kendu nahi zuten jokalaririk urdin-beltzek Bergara Soraluze KEren aurka. Ederki egin zuen lan Gaizka Urreiztik zuzentzen duen taldeak eta partida berdindua izan zen. Emaizta, ordea, ez zen Ostadarren aldekoa izan. Bergara Soraluze 43-46 irabazi zuen.

Lehen laurdenean, Bergarako jokalariek partidaren erritmoa ezarri zuten eta urdin-beltzek zail izan zuten saskiratzea. Markagailuan aurreratu zuen aurkaria, baina Ostadarrek presio gogorarekin lortu zuen bere uztia defenditzea. Ondorioz, saskiratze ugari egin eta partida berdindu zuten. Laurdena, ordea, Bergararentzat izan zen, 13-17.

Bigarren ere berdintasuna izan zen nagusi. Eraso bakoitzari ederki

erantzuten zion aurkariak eta hiruko jaurtiketek garrantzia izan zuten. Atsedendialdiaren ostean, talde urdin-beltzak defentsa aldatu zuten. Zona defentsa ezarri eta Bergarako jokalariek urruneko jaurtiketak besterik ezin izan zituzten egin. Ondorioz, Urreiztik zuzentzen duen taldeak partziala irabazi zuen, 10-9.

Azken laurdena zirraragarria izan zen. 33-37 hasi arren, presioa egin eta partida 39na berdintzea lortu zuten Ostadarreko jokalariek. Defentsa lanak, ordea, urdin-beltzak nekatu zituen, eta hutsuneak utzi. Horiek ongi baliatu zituen Bergarak aurre hartzeko. Ostadarrek erantzun eta bi minutu faltan, 43-43 zegoen markagailuan.

Aurkariak, ordea, ez zuen amore eman eta biko saskiratzea eta falta pertsonal bat egin zituen. Hiruko saskiratzea zen talde urdin-beltzaren esperantza bakarra, baina baloia ez zen saskian sartu.



Euskal Ligako 2019-2020 denboraldiko partida. TXINTXARRI

0 garaitu zuten Uribealdea; bigarrenek, berriz, 66-10 galdu zuten AVK Bera Bera-ren aurka.

Euskal Ligako Emakumezko 1. Mailan, Paola Vega herritarra kide duen Cominter Tisu Hernanik garaipen landua lortu zuen, 26-14. AVK Bera Bera izan zuen aurkari.

Bestalde, urriaren 23an, errugbia itzuliko da Michelin kirol gunera. Euskal Ligako 2. Mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta Gaztediren aurkako partida jokatu da, 14:50ean.

2021eko kirolari onenen hautaketa martxan da

Lasarte-Oriako Udalak aurtengo emakumezko zein gizonezko kirolari onenak eta ibilbide profesionala sarituko ditu. Herritarrek eta elkarteek hautagaiak aurkezteko epea ireki du. Urriaren 31ra arte jasoko ditu proposamenak Kirol Zerbitzuak

Txintxarri

2020. urteko etenaren ostean, Lasarte-Oriako Udalak 2021eko kirolari onena aukeratzeko parte-hartze prozesua martxan jarri du. Agustin Valdivia alkateak, Txus Alonso Kirol batzordeburuak eta Nagore Duran Parte-hartze saileko arduradunak aurkeztu dute ekimena.

Hiru sari banatuko ditu: emakumezko eta gizonezko kirolari onenak eta ibilbide profesionala. Hautagaiak pertsona helduak izan behar dute.

Sarirako hautagaitzak herriko etxeetara iritsi den eskuorrian zein Lasarte-Oriako webgunean eta kiroldegian eskura daitekeen orrian aurkeztu behar dira.

Proposamenak partehartzea@lasarte-oria.eus helbide elektronikora bidali edota parte-hartze postontzietan utzi daiteke. Horiek Sexuen Elkartzetarako Emakumearen Zentroan, Manuel Lekuona Kultur Etxean, Gaztelekuan, Lasarte-Oriako Udaletxe zaharreko arkupeetan eta Maialen Chourraut Kiroldegian daude kokatuak.

Herritarrek edo elkarteek gehienez hautagai bat aurkez dezakete eta urriaren 31ra arte egin ahalko dituzte proposamenak.



Udal ordezkariak, 2021eko kirolari onenen parte-hartze prozesua aurkezten. T. VALLES

Aurten, berrikuntza modura, etxeetara iritsi diren parte-hartzeko orrietan QR kodea txertatu dute. Horrek udalaren webguneko partaidetza prozesura bideratuko du herritarra, eta bertan parte hartu ahal izango du, baita horren oinarriak ikusi ere.

Bozka eta sari banaketa

Kirol Zerbitzuak hautagaien zerrenda osatu ostean, herriko kirol elkarteek eta udaleko Kirol batzordeko kideek sarituak erabakitzeko bozkatuko dute.

Kirol elkarteek azaroaren 17a baino lehen eman beharko dute euren iritzia; batzordekideek, berriz, azaroaren 19ko batzordean aurkeztuko dituzte euren bozkek.

2021eko kirolariek diploma bat jasoko dute abenduaren 17an egingo den Lasarte-Oriako Kirolaren Galan.

Ordura arte, Kale Nagusiko faroletan Lasarte-Oriako Kirol Galan sarituko izan diren hamabost kirolarien banderolak jarriko direla jakitera eman dute. Banderatxo horiek datorren astean jarriko dira.



Ostadar SKTko Infantil 1. Mailako derbia izan zen Michelin kirol gunean. TXINTXARRI

Infantil mailako taldeak ere martxan dira

Ostadar A eta B taldeak eta Texas Lasartearra 6. multzoan lehiatuko dira elkarren aurka

Txintxarri

Pixkanaka futbol taldeak 2021-2022 denboraldian murgiltzen doaz. Urriaren 15-17ko asteburuan Infantil 1. Mailako futbol taldeak lehiara itzuli dira urtebeteko geldialdiaren ostean.

Ostadar SKTren bi talde eta Texas Lasartearra-ren bat izango dira aurten maila horretan lehiatzen. Hiru taldeek elkarren aurka jokatu dute 6. multzoan.

Lehen jardunaldian, esate baterako, Ostadar A eta B taldeen derbia izan zen Michelin kirol gunean. Ostadar A izan zen nagusi eta 2-8 irabazi zuen.

Texas Lasartearrak, berriz, Danena izan zuen aurrez aurre Elbarrenako zelaian, Zizurkilen. Zuri-urdinek ederki egin zuten lan garaipena lortzeko eta 3-5 gailendu ziren.

Jardunaldi horretako gainerako emaitzak honakoak izan ziren: Emakumezkoen Ohorezko Maila,

Ostadar SKT 1-1 Mariño CD; Gorengoen Maila, Astigarragako Mundarro 3-1 Ostadar SKT; Ohorezko Jubenil Maila, Ostadar SKT 2-4 Orioko FT; Jubenilen 1. Maila, Ostadar SKT A 4-0 Amara Berri KE; Urnieta KE B 2-4 Ostadar SKT B; Ohorezko Kadete Maila, Ostadar SKT 1-0 Antiguoko KE; Kadeteen 1. Maila, Ostadar SKT A 2-0 Zarautz KE C; Zarautz KE A 7-1 Ostadar SKT B; Texas Lasartearra 6-1 Mundaiz SCD; Infantil Ohorezko maila, Euskalduna SD 3-3 Ostadar SKT; Infantil Txiki, Ostadar SKT 1-2 Añorga KKE.

Deialdira itzulera

Ellas Ligan jokatzeko ari den Real Sociedad taldeak berri ona jaso zuen. Iraia Iparragirre Argandoña herritarra dagoeneko osatu da, eta deialdian izan zen Levanteren aurka, Zubietan. Tamalez, 0-1 galdu zuen taldeak.

Buruntzaldeko ibilbideez gozatu dute herritarrek

Hamahirugarrenez, Buruntzaldeko landa ingurunea ezagutzeko Ibilbideen Eguna aurrera eramanez

Txintxarri

Eguraldia lagun, Buruntzaldeko XIII. Ibilbideen Eguna aitzakia aproposa izan daiteke ariketa fisikoa egiteko. 08:00etatik 14:00etara artean Lasarte-Oria zeharkatzen duten hiru ibilbideetako bat eginez parte-hartzeko aukera dute eskualdeko

herritarrek: Lasarte-Oria hasi eta Urnietan bukatu, Lasarte-Oria, Usurbil eta Aginaga edota Andoain-Lasarte.

Ostadar Ipar Martxako taldeek ez dute hutsik egin, eta 09:00en bueltan, talde argazkia egin ondoren, abiatu dira Elizatzetik. Bertatik igaro dira herriaren

inguru naturalaz gozatzera animatu direnak, izan ere, bertan baitzegoen kontrol puntua. Jarduera hasi eta ordubete luzera, 35 bat lagunek izen-abizena emana zuten. Nahi izan dutenek, gainera, ura, fruta eta zereal barratxoak hartzeko aukera izan dute.

Ez dira, ordea, bertatik irten direnak bakarrik pasatu postu horretatik. Eskualdeko beste ibilbideren bat egitera animatu direnen bidean ere baitzeuden. Izan ere, helburua eskualdea eta landa ingurunea ezagutaraztea da, lehia gabe eta edonork egin dezakeen jarduera fisikoaren bidez.



Adin guztietako herritarrek bat egin zuten ibilbideen egunarekin. TXINTXARRI

KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Ilargi
Zorionak Ilargi!! Asko maite zaitugu. Aita, ama eta Maren.




Maitane
Kuku! Zure eguna da gaur eta gu hamaiketakoaren zain gaude; zure urtebetetze eguneko EKINTZA eder bat egiteko gogoz! Bazatoz? Guk, zuri mila kilo zorion opa dizkizugu!




Haritz
Zorionak, Santo Kristo! Zure etxe atzeko depositoetan rabea prest dugu; kale egingo al duzu? Ez ahaztu patata-tortilla! Urte askotarako!



Andrea
Zorionak zuri, zorionak beti... 23 urte! Gorde indarrak iganderako! Muxu asko familiaren partetik.



Silvia
Zorionak mundu osoko ama hoberenari, asko maite zaitugu! Mila muxu familiaren partez.



Haitz
Zorionak pottoko!!! Egun ederra igaro izana espero dugu. Zazpi muxu handi familia guztiaren partetik.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06.

ERRENTAN EMAN

Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89.
Garajea alokatzen dut Torre parkean (Brigidarren plazan). Harremanetarako zenbakia: 648 20 08 11.

LANA

ESKAINITZA
Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

ESKARIA

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.
Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.
Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia

handikoa eta profesionala garbiketari.
Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.
Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko

lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.
Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu

edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.
Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke,

eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU
Paseorako bi txirinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.
Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro.
Harremanetarako zenbakia: 670 20 78 14, Amaia.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publikizitatea@ttakun.eus 646.824466

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julien Basterra, Nerea Segura, Liemii Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzailak:

Igone Mendizabal, Olatz Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, SA

Lege Gordailua:

SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Dantza. Gero Axular Dantza Taldeak *Higa* ikuskizun berria ekarriko du bihar, urriaren 23an, Manuel Lekuona Kultur Etxera. Estreinakoz aurkeztuko dute jendaurrean. Euskal historiaren eta kulturaren pasarte bat ardatz hartu eta gaur egungo gizartearen kezka-iturri diren gaiak buruzko gogoeta eginez sortzen dituzte ikuskizunak, eta bide horretan osatu dute Higa ere. Iau mende egin dute atzera oraingoan; sorginen garaira. Donibane Lohitzunen (Lapuri) sorginkeriagatik epaitutako emakumeen kontuak ekarriko dituzte oholtzara. Kultur etxeko auditorioan izango da emanaldia eta sarrerak 5,50 euroan daude salgai. Urriaren 22an, 19:30ean, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Erakusketa

Gero Axular Kultur Taldeak eta Apoyo Dravet elkarteak elkarlanean sortu dute *DravetTzari* proiektua. Sarrera, doan. Urriaren 27ra arte egongo da zabalik, asteazkenarekin. Kultur etxea, 17:00-21:00.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *First cow* filma emango du. Sarrerak 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 20:30ean.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Euskal Jaia

lazo ospakizun sinbolikoaren ostean, bueltan da Euskal Jaia.

09:30ean, diana, txistularien eskutik, Okendo plazatik abiatuta.

11:00etatik 12:30era, haurrentzako kantu dantza jira, Sargardotegi plazatik.

11:00etatik 13:30era, artisauen azoka Okendo plazan.

14:00etan, Ttakunenean, herri bazkaria, eta gero, musika animazioa.

17:30ean, erromeria, Ttiriki Ttarraka eskolaren eskutik, Okendon. Herrian zehar.

LASARTE-ORIA Urteurrena

Ttakun Kultur Elkartek 30 urte beteko ditu aurten, eta ospakizunei ekingo die. Ekitaldia egingo du harekin elkarlanean aritu diren eragileei eskerrak emateko. Okendo plaza, 12:30ean.

LASARTE-ORIA Topaketa

Lasarte-Oriako neska* gazteen eguna antolatu du aSUnak talde feministak.

11:00etan, buruberoki tailerra egingo dute udal euskaltegian.

12:30ean, bafflepoteoa.

14:00etan bazkari autogestionatua Xirimiri elkartearen, eta ondoren, *Furor*. Herrian zehar.

LASARTE-ORIA Dantza

XVII. Dantza Zirkuituaren barruan *Higa* ikuskizunaz gozatu ahalko dute herritarrek. Sarrerak 5,50 euro balio dute eta salgai daude kultur etxeko leihatilan zein Interneten.

Kultur etxea, 19:30ean.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Kontzertua

Zero Sette Akordeoi kontzertua emango du, euskal abestiz osatutako erreperorioarekin.

Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Ninja a cuadros 2: misión Thailandia filma proiektatuko dute. Sarrerak 3,80 euro balio dute eta kultur etxean edo Internet bidez eros daitezke.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Lasarteoriatarrek *Dune* filma ikustera joateko aukera izango dute. Sarrerak 3,80 euro balio dute eta kultur etxean edo Internet bidez eros daitezke.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 25

LASARTE-ORIA Literatura

Bea Egizabal ipuin kontalariak saioa eskainiko du

Udal liburutegia, 18:00etan.

ASTEARTEA 26

LASARTE-ORIA Literatura

Jose Luis Navarro herritarrak *Retazos IV* liburua aurkeztuko du, Lasarte-Oriaren historiaren pasarteekin ondu duen laugarrena.

Kultur Etxeko hitzaldi aretoa, 18:00etan.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

'Venom 2'
Urriak 22:
16:00, 17:00,
18:30, 19:30,
20:45, 22:00,
22:45.

Urriak 23:
16:00, 17:00,
18:30, 19:30,
20:45, 22:00,
22:45.

Urriak 24:
16:00, 17:00,
18:30, 19:30,
20:45, 22:00,
22:45.

'El buen patrón'

Urriak 22: 21:00.
Urriak 23: 21:00.
Urriak 24: 21:00.

'Halloween kills'

Urriak 22: 17:15,
20:15, 22:25.

Urriak 23:
17:15, 20:15,
22:25.

Urriak 24:
17:15, 20:15,
22:25.

'Ron da error'

Urriak 22:
15:45, 16:45,
18:00, 19:25,
20:00.

Urriak 23:
15:45, 16:45,
18:00, 19:25,
22:00.

Urriak 24:
15:45, 16:45,
18:00, 19:25,
22:00.

Urriak 24:
15:45, 16:45,
18:00, 19:25,
22:00.

'Sin tiempo para morir'

Urriak 22:
18:05, 21:40.

Urriak 23:
18:05, 21:40.

Urriak 24:
18:05, 21:40.

'La familia Addams 2'

Urriak 22:
16:25, 18:40.

Urriak 23:
16:25, 18:40.

Urriak 24:
16:25, 18:40.

'La crónica francesa'

Urriak 22:
16:15, 19:10,
22:05.

Urriak 23:

16:15, 19:10,
22:05.

Urriak 24:
16:15, 19:10,
22:05.

ANDOAIN

BASTERO

'Madres paralelas'

Urriak 23:
19:30, 22:00.

Urriak 24:
19:30, 22:00.

'The oggliest'

Urriak 23:
17:00.

Urriak 24:
17:00.

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA Literatura

Memoria historikoa lantzen duen herriko Islada Ezkutatuak taldeko kide Joxea Muguruzak *El enigma de Txaldatxur* liburua aurkeztuko du. Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:00etan.

IGANDEA 31

LASARTE-ORIA Zinema

D'Ortagnan eta hiru mosketakurrak filma ikusi ahalko dute herritarrek. Sarrerak 3,80 euro balio dute. Kultur etxean edo Internet bidez eros daitezke.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Entre rosas filma proiektatuko dute. Sarrerak 3,80 euro balio dute. Sarrerak, kultur etxean edo sarean.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEARTEA 2

LASARTE-ORIA Erakusketa

Bizikidetzarako memoria erakusketa irekiko du Lasarte-Oriako Bizikidetzaren testuinguru orokorra eskainiko du, eta bestetik, Lasarte-Oriaren jazotakoa. Antonio Mercero gunea, 17:30etik 20:30era bitartean.

ASTEAZKENA 3

LASARTE-ORIA Literatura

Asun Moreno herritarrak *Merci maman* liburua aurkeztuko du. Hiru

belaunaldi desberdinetako kideak dira liburuaren ardatz, era batera edo bestera: amona, protagonista delako; alaba, idazlea delako; eta biloba, ilustratzailea delako. Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA Zinema

Azaroko lehenengo saioa egingo du Okendo Zinema Taldeak: *Maixabel* filma proiektatuko du. Sarrerak 5,50 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:30ean.

LARUNBATA 6

LASARTE-ORIA Antzerkia

Tomaxen abenturak: azken balea antzerkia oholtzaratuko du Xepeta Produzioak konpainiak.

Kultur etxea, 17:00etan.

ASTEAZKENA 10

LASARTE-ORIA Literatura

Bea Egizabal ipuin kontalariak saioa eskainiko du.

Udal liburutegia, 18:00etan.

ASTEAZKENA 10

LASARTE-ORIA Opera

Piotr Ilich Tchaikovsky konpositorearen *El cascanueces* balleta proiektatuko dute. Sarrerak 7,5 eta 9 euro artean balio dute, eta salgai daude honezkerok, www.ticket.kubxaban.es webgunean.

Kultur etxea, 19:00etan.

BETI ZUREKIN

Bertako Iggailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
iggailuak | ascensores
www.bertako.eus




ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATZEA


HARRAPATZE
EGOERAK


IGOGAILUKO
ZARATAK


365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari
Nafarroa hego eta erdialdean



errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria



25 urte

pertsonen arteko zubiak eraikitzen



FAMILIA BITARTEKARITZAKO
ZERBITZUA

BILBON, DONOSTIAN, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familiabitarartekaritza



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

BERINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES